



## Irakurketa Erraza

Egun on:

Mezu hau Nafarroako Gobernuko  
Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen  
Zuzendaria Nagusitik bidaltzen dizugu.

Web-mintegi bat antolatu dugu.

**Web-mintegi** bat Interneten bidez egiten den  
konferentzia bat da.

Web-mintegi hau

**Somos Personas / Pertsonak gara** programaren barruan dago  
eta **Eskubideak eta emozioak,**  
**haurtzaro justu baterako gakoak** deitzen da.

Mintegi honetan hitz egingo dugu  
zein garrantzitsuak diren eskubideak eta emozioak  
haurren haurtzaroa bidezkoa izan dadin.

Web-mintegi hau

UNICEF, MAGALE eta ANAR-ekin batera antolatzen dugu.

**UNICEF** haurren eskubideak defendatzen dituen  
erakunde bat da.

**MAGALE** Nafarroako harrera familien elkarte da.

**ANAR** arrisku egoeran edo babesgabezia egoeran dauden haur eta nerabeen eskubideak sustatzen eta defendatzen dituen fundazioa da.

Web-mintegi hau **irisgarria** da.

Honek esan nahi du

pertsona guztiek bertan ematen den informazioa

ulertu dezaketela.

Web-mintegia azpigituluekin eta zeinu hizkuntzarekin da.

### **Nork hitz egingo du web-mintegi honetan?**

**Maidor Gabilondo.**

Nafarroako UNICEFen koordinatzailea da.

**Carlos Amatriain Busto.**

Nafarroako Gobernuko Gazteriaren

Zuzendari Nagusia da.

**Diana Díaz.**

ANAR Fundazioaren Txat Telefonoaren zuzendaria da.

### **Noiz da web-mintegia?**

Web-mintegia **azaroak 28 astelehena**

arratsaldeko 4etatik 5etara da.

### **Zer egin behar dut web-mintegian izena emateko?**

Izena emateko esteka honetan klikatu behar duzu

eta zuri buruzko datu batzuk bete behar dituzu:

<https://forms.gle/ZdXJskCThu3J5jjY6>

Ondorengo datu hauek idazteko eskatuko dizute:

- Zure izena.
- Zure abizenak.
- Zure helbide elektronikoa.

Izena eman eta gero  
urriak 24 astelehenean  
mezu elektroniko bat jasoko duzu  
web-mintegian sartzeko estekarekin.

### **Non aurkitu dezaket informazio gehiago?**

Web-mintegi honi buruz gauza gehiago jakiteko  
2 gauza egin ditzakezu:

- Bidali mezu elektroniko bat [pazyconvivencia@navarra.es](mailto:pazyconvivencia@navarra.es) es helbidera.
- 848 426 022 telefono zenbakira deitu dezakezu.

Parte hartzera eta informazio hau  
nahi duzu pertsona guztiekin elkarbanatzera  
animatzen zaitugu.

### **Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia**

Arrieta, 12-5.a-31002 Pamplona / Iruña

